

Asko egin dezakete hezitzaileek

ikastaroa!

Hartzaileak

Eskola ordurik kanpoko jardueretan, haurrekin edo gazteekin lan egiten duten hezitzaileak: kiroltako entrenatzaileak, aisiako begiraleak, antzerkiko irakasleak, jangeletako begiraleak...

Helburua

Hezitzaileei metodo bat proposatzea eta estrategia-sorta bat eskaintzea, hauren eta gazteen artean euskararen erabilera gauzatzen asmatzeko.

Iraupena

2 eta 10 ordu bitarteko ikastaroak izan daitezke, eskatzailearen ezaugarri, behar eta nahien arabera.

Zenbateko taldeak

20 hezitzaile taldeko gehienez.

Edukia

Hizkuntzaren erabilera-urratsak, interbentzio-eremuak, hezitzailearen taldeko kokapenak, hizkuntzazko estrategiak, helburuak zehazteko moduak...

